URRILLA
3
Egubaztena
Bilbao, 1934

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
..o'kua ... ... 6,00 irko.-iru ile
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Id.ki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 100,00 " "

Beldayen itunduba

XXII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.807 zenbakija

Egunekua

Urteurrena

Amasei urte atzo ornidu ziran Molinuevo eta Aŕiola'taŕ Maren, Abando'ko txaide baten ilotzik jausi zala.

Maren gaxua erail eban aiztua, zozolisto batena ixan zan.

Eta Maren abeŕtzale zintzua ilobiratu eban zozolistua, ez eben gaiztetsi, abeŕtzale bat erailtiagatik zijoŕik ezpa leguan, azke ibilten laketu baño.

Maren abeŕtzale gastiaren ordez, Maren erail eban zozolistua jausi ixan ba 'litz, baña, gaiztetsi egingo eben, eta ogei urterako-edo, Dueso'ko espetxera bidaldu.

Idiakez Dueso'ratu eben epaikarijak, alan egin eben. Eta Maren erail ebanak baño azke geratutego zijo geyago ebala, ganera.

Emen beko epaikarijak emoten dabezan epayakaz, zuzutsari begira gagozan gixagaxuok, aŕearenak egiten saŕi imiñiko gaŕubez, euren eŕiketa-bidezko epayak bide dirala, zuzutsaren azteŕenik be ikusi ezin dogulako.

Euzkadi'ren azkatasuna olantxe gastedijaren odolagaz irabazi biaŕ dana da, aurki.

Azkatasun au ezta ez merkia, gareztijen aŕtian gareztijena baño.

Gure gastedijaren odola, aldintsuba da, ba. Eta odol aldintsu onegaz, Euzkadi rik geyena goŕituta auŕkitzen da.

Euzko-odol-eŕijo onen auŕian, ikaspide edeŕik asko ikusi geinkez.

Abeŕi-etoyai geure asaŕerik sutsubena erakusteko, berau baño ikaspide oberik, ezebez.

Asaŕe ori, zarata ta kaŕaxijakaz eztogu erakutsi biaŕ, baŕiz, abeŕijaren onerako diran egiñen abeŕkoyakaz baño.

Zaunka asko dagijan txakuŕari, uŕunetik eta etoikeriz aŕija jauŕtiten dautse.

Etxeko ate-auŕetik urtenge, auŕez-auŕe jaŕita agin zoŕotzak aragijan saŕtzeko erakusten dauzanari, ostera, atza-tzeka egingo dautse.

Euzkotaŕen osperik aundijena be, oŕetantxe ixan da, ba: zarata gitxi ta egiñen asko erakustian.

Orain irakuŕle, Maren abeŕtzale gaxuaren amaseigaŕen urteuŕena da. Beste egun baten, beste abeŕtzale batzubenak ixango dira.

Euzkadi'rn azkatasun-bidian, abeŕtzale askoren odola jausi da, ba.

Egunen baten, Euzkadi'ren azkatasunatzaz idatziko dan edestijan, abeŕi-aldezko ziñopa gusti onein ixenak ageŕtuko dira, ta oron Irakaslia ixan zan Sabin lenengo abeŕi-ziñopea auŕenengo dala ageŕtu be.

Bitaŕtian, guk ziñopeak ixateraño elduteko zoriragain ixan eztogunok, ildakuaren aldez otoi egin daigun.

Eta abeŕi-ziñopa azaŕijoin aldezko otoyok, kistaŕ zinismenian goritŕuteko ixan dagixala, abeŕi-sutan galdatuteko ixan dagixala... Goyan begoz.

Azke ixateko eskubidia

Tarissens Gotzaña'k, flamendaŕ ikasbide batzokiko lendakari zala, flamendaŕen igikundia Doipuruba'ren auŕian, egun baten, gaitz-erizten asi ei-zan.

Doipuruba'k, baña, beriala auŕian aŕtuta, olantxe erantzun ei-eutsan:

—"Ez nekatu oŕetzaz ni zuritŕuten; ori gustijori dakitzut, ba, baŕa flamendaŕak euren eskubidian dagozala be."

Edeŕto erantzun eutsan, Doipuru bategandik bestelako erantzunik itxaron be eziñeukian-eta.

Gotzain-antza aŕtuta dabiltzazan txamaŕadunentzako be, Doipuru zuzenaren erantzun au, ezta makala.

Donoki-usaña dauken erantzun zuzenok, Doipurubagandik-edo etoŕi biaŕko dabe, enparauko gixakijokandik, gotzain jantzita be, donoki-sundeko erantzunak baño, emen beko lupetzaaŕteko eŕiketa-usañeko erantzun bijuŕijak saŕijago ixango doguz -eta.

Abeŕijai euren eskubidiak aldeztuten lagaten etxaken bitaŕtian, gixaŕtian ezta zoriionik ixango.

Gixaŕtian zorijona ixango ba-da, bata -bestiaganako maŕasuna soŕtu biaŕko da, bata-bestiaganako lotzea ta itzala.

卐 卐 卐

Atzo, esaterako, España osuaren buru ixan zan. Samper jauna, gauŕ geure beste baño ezta.

Gure beste bez, aren ixena baño guria, garbijago ageŕtuten data.

Euzko-Udalen auzija zala-ta be, arek, Samper jaunak, irakuŕle, euroen eskubidiak aldeztutian, izpidian egozala autoŕtu eban.

Alan eta gusti be, baña, Samper'ek, Euzko-Udalen auŕka egin dau, ta gogoŕ egin be. Auzi onetan, jaun ori, Josu-Kisto eŕugia epaŕu ebanian, Pilatus ageŕtu ixan zan lez bardin-bardin ageŕtu da. Arek be, ba, Josu'ri, erijotzara epaŕuteko ez gitxijagorako be, ezeutsan obenik idoro. Alan eta gusti ba, baña, Josu, erijotzara epaŕu eban.

Emengo parixetaŕak irudi onei eztakigu zer eretxiko dautsien, ezta Donostia'ko "Constantziatxuk" gazteleraz imiñiŕa argiŕalduko ba-dauz be.

Didaŕ, gaŕaxi ta zaunka egiten ba-dabe be baña, Pilatus'en epaya ezin guzuŕtau ixango dabe, ezta Samper'ek Euzko-Udalen auzijatzaz esan ebana be.

卐 卐 卐

Samper, gauŕ egi-pidetik kanpora dago.

Gixozte eŕugiei indaŕ-bidez burubak makuŕtuten ibiliŕa be, agintza-aulkijan ezin geratu ixan da.

Gixoztiei, zijoŕ ezeskaŕija barik, bakotxari yaokazan eskubidien lagidija erakutsi ixan ba'leutsie, gauŕ be aginpidian egongo zan.

Bere etxeko sendijan edeŕto atonduten zan Catalunya'ri zirika asi ezpa'litz, gauŕ be, Samper, lengo lekuban auŕkituko zan. Euzkadi'ren eskubidiak auts biguŕtuteko biderik aŕtu ezpa'leu, gauŕ be Madrid'ko altsein-buru ixango zan.

Baña Samper, bidetik urtenda ibili da. Euzkotaŕok izpidian gagozala ezagutu, ta euzkotaŕoi zigoŕkadak-zigoŕkada jauŕtiten.

Gixona lokatuteko, izpidiaren auŕka, egijaren kaltez ibiliŕa lakorik eztago.

Gixaŕteko bakia, bakotxari beria emoten etxakon aŕtian, ezta loŕtuko.

España'k, be, gentzea ta zorijona gura ba-dauz, Euzkadi'ri bere eskubidiak emoten ikasi biaŕko dau. Bitaŕtian, España'k, eztau zorijonik loŕtuko.

URIBITAŔTE'TAŔ IBON.

Pizti-Patariak

Aragi-jaleak

Kata-jinetea

Ba-al-da kata-jinetarik Euzkadi'n?

Itaune oneri erantzuteko oñaŕi bat baño ez dot. Edo obeto esan, oñaŕi bat eta susmo edo aztaŕen bat.

Oñaŕia—siñisgaŕia, auŕki—Muxika'taŕ Serapi jaunak "Geografía del País Vasco -Navarro—Guipúzcoa" deritxon liburuan diñona: arean, ba-dala Gipuzkoa'n olako izeneko piztia.

Susmoa edo aztaŕena—oñaŕi aren sendogaŕia—oraindik Euzkadi'n galdu ez dan beste pizti batek, Gipuzkoa'ko nonbaiten gauŕ dan egunean daroan izena.

Oñaŕia sendotzeko asmoz eta aztaŕenari txuxen jaŕaitzeko alegiñez, bata eta bestea azaldu, orduko esan dagidan zer pizti dogun "kata-jinetea", eta ene irakuŕleen aŕtean ba'lego iñor, batez bere gipuzkoaŕ edo napaŕtaŕik—edo begiz edo entzutez olako piztiaren beŕi zerbait dakikeanik, aŕen, euzkerearen onerako bialdu beza EUZKADI izpaŕingi onetara "paper puntatxo" bat, esanez, non ikusi duan alako piztirik, non aditu izan duan alako piztiatzazko jardunik, zein izen edo zeintzuk izen entzun izan dituzan alako piztiarentzat; itz baten: pizti onetzaz argi egin lezaken zernai bialdu beza, eta "Lauaxeta" jaunak pozik aŕtuko dio, eta ni gaxo au eskeŕ zoŕean geldituko natzaio.

Emen Bizkaya'n, alegiñik asko egin aŕen, iñolaz ere ezin auŕkitu izan det iñor pizti onen beŕi emon izan lezakidakenik. Ezer iristekotan, beraz, Gipuzkoa'ra edo Napaŕoa'ra jo beaŕ det. Ba-dakit olako eskabideeri ez zaitela jaramon andirik egiten Ba'geneki, oŕaitio, norberen alegin pitin batez euzkereari egin genezakioken on andia! Nere alegiñak, aspaldi, Euzkal -eŕiko piztien arazo au bere senean jaŕtzea da. Ez al det iritxiko argibiderik lagundu al nazaken iñoren aldetik?

卐 卐 卐

Kata-jinetea metro erdi luzeko piztia da. Buztana iya bere añakoa du, beŕogei zentimetro bait-ditu. Goiberaz, lepaustai ganetik, amazazpi zentimetro. Ankak labuŕak, beraz, baña gorputza liraiña oso. Kokote luzea; burua txikia, atze aldetik zabala, mutu zoŕotzarekin eta belaŕi txiki, zabal, biribilduakin. Begiak kataŕenak bezelakoak; egunez begiko ñiñiak goitik berako ebaki sakonaren antz ematen dio. Laŕuko ilea labuŕa, lodi eta leun. Ilea kondo edo eŕo aldetik zuriska-oriskea du gorputz denean. Laŕua gane aldean eta alboetan eta anka mazeletan, bertziña edo nabaŕa, olako gisaz: burutik atze alderaño albo banatan eta gorputzaren luzetara, lau edo bost zeŕenda beltz doakioz, baña zeŕenda ok ez dira osoak, ebakiak baizik, eta ikusi arin baten zetaka baltzak dirudite; ongi oaŕtu ezkero, ordea, burutik atze alderako bidea leŕoz-leŕo daramatela argi ikusten da. Lepoak buru-aldean lau zeŕenda beltz estuak. Eztaŕia zuriskea. Begi azpietan mota aundi bana eta beste txikiago bana begiganean. Mutuŕa beltziskea eta mazai aldetan zuria. Buztana, aŕoa barik, leuna, zazpi edo zortzi eraztun beltziskarekin, eta beltzez bukatua.

Pizti au egunez ez da ain eŕez ikusi al izatea. Ibilbidetzat berdin izaten dituz mendi soilak zein mendi ovantsuak eta ibaŕetara ere maiz jetxitzen da. Toki ezeak ditu maiteen: iturbegi eta eŕeka ondoak, basoak eta arkaitzak. Belardietan eta aŕitzetan gustiz eŕez ayenatzenda eiztarien begietarik, bai naŕazka ibiliaz gorputza ezkutatzen dakialako eta bai laŕua aŕkaitzen eta luŕaren kolorekoa dualako.

Gauez eŕezago auŕkitu diteke arestian esan ditugun tokietan. Ilunabaŕa baño azkozaz beranduago ateratzen da saizulotik eta geyenetan iŕistean bezela ibiltzen da, bedaxkarik - bedaxka, aŕkaitzik-aŕkaitz, alde guzietara usainka, zokomiran, beti ernai, beti adi. Edozein abere gaiso ikusten duaneko, an doakio zapaŕt batean eta egaŕi biziz odola edoski ondoren, mauka -mauka irensten du. Basoko sagu eta aŕatoiak, satoŕak, txoriak eta aŕautzak, eta baita sugeren batzuk ere, izaten ditu egunoroko jakiak, eta edozein zokondotik ateraten ditu bere odol egaŕia asetzeko.

Lepatxuria eta erbi-iñudea bezin kaltegaŕia da olotegi eta usategietarako. Baña, toki ayetan egin lezaken kaltea aisa ordaintzen dio baseŕitaŕari aŕatoien aŕtean egiten duan garbiketearen truke, aŕatoiok bait-dira aren elikaturarik bereziena.

Ikusgaŕia da kata-jinetearen ibilkera liraiña. Ez da noski beste abererik ak baño igikera ariñago eta dotoreagodunik, eta esan diteke alde guzietan dituala ezuŕ-txoko edo giltzak gorputzari nolanai eragiteko. Sugeak bezala daki naŕaz eta kiribioka ibilten eta lau-oinka kata-marteak beŕak ere ez lioke atzean geldi-araziko.

卐 卐 卐

Ikusi dezagun orain Muxika jaunak kata-jineteari buruz diona eta idazkai onetarako nik oñaritzat aŕtu dedana. Ona emen euzkeratuta goyan aipaturiko liburuan 212'gn. oŕialdean agertzen dana:

"Basakatua ez da bakana Gipuzkoa'n. Era berean bizi da mendi goitsuetan zein toki beetan. Oyaŕtzun eta Napaŕoa bitaŕteko mugan, otariko bi mota bereziak ezagutzen dira: basoko katu aŕonta, "basa -katua" esaten zaiona, etxe-katua baño pizkat andiagoa, aŕea (pardo), beŕtziña (con barras atigradas). Besteari "Katu -jinetia", gineta, esaten zaio, kolore-zuria zetaka (mancha) beltzakin, kokote luzea eta zerdena, buru-txikia; etxeko katuaren ezteria (tamaños) du."

Beraz, Gipuzkoa'n eta orobat Napaŕoa'n ba-da edo beñipein oraintsu aŕtean izan da kata-jinetea. Eta Muxika jaunaren esana eta jakitunen aitoŕmena pizti onen bizitokietaz, bat datoz. Kata-jinetea, jatoŕiz, Atlas deritxen Aŕika'ko mendietakoa da; baña, Europa'n ere auŕkitzen omen da pizti au, batzuek diotenez, Andalucia'n, eta Iberica izeneko mendi leŕoetan eta Auñe -mendietan. Beste batzuen eritxiz. Españia ipaŕ-aldean eta Frantzia ego-aldean. Dana -dala, Auñe-mendietan bizi diteken piztia danik ez du iñork ukatzen, eta beraz, Gipuzkoa-Napaŕoetan bizi litekenik ez siñistutzeko ez degu ziorik batere.

Kata-jinetea Afrika aldeko piztia izanik ba-liteke Españia'ra mauroak ekaŕia izatea, eta Españia'tik Euzkadi'n saŕtua. Kata-jinetea pizti ezikoŕa da, eta Berberia'n etxe-katua bai'litzan edukitzen dute etxe baŕenan saguak eta aŕatoiak garbitzeko, eta agi danez, bere biziko ongien betetzen du zeregin au. Piztiok ongi elkaŕ artzen omen dute eta bi eta geigo ere eduki omen ditezke etxe batean. Mauroen aŕtian oitura txit zaaŕa da kata-jinetak etxean edukitzea, eta siñisgaŕia da ayek Españia 'n sartzean, oitura berari jaŕaituz, pizti ura berekin ekaŕi izatea eta andik onera zabaltzea. Eta diotenez, españiaŕak eta mauroen aŕteko gudate luzean, arako lenengo aldietako eraso-aldi batean españiaŕak garaile irtenik, mauro aunitz aŕtu omen zituzten katigu, eta aŕituta gelditu omen ziran españiaŕak, eraso-aldi atan egin zuten gudakiñaren aŕtean, alako piztiaren laŕu asko aurkitzeaz, ez bait-zuten alako pizti bizirik egundaiño ikusi.

Au onela izanik, beŕiz ere asierako galdea egiten det. Oraindik ba-al-da kata-jinetarik Euzkadi'n? Baietzekotan naiz ezetzekotan, ez aldu, edo ez al du izan beste izenik euzkeraz?

Eta ona emen goyan aipaturiko susmoa. Orixe jaunak esanik dakit marteari Orexa'n "txiñotea" esaten zaiola. Ez da duda-mudarik esan onetan. Ara Orixe'ren beraren itzak. "Txiñote ori" "marta" bide da. Gure aitak eta aŕebeak saŕitan ikusi dute. Lepatxuriaren (garduñaren) antz-antzekoa omen da. Samea (eztaŕia) beilegia (oria) omen du ta buztan-isatsa astiña (aŕoa)". Olako piztia martea da, ziñez.

Marteak izen asko dituz euzkeraz. Bizkaya'n, katakux, mierle; Gipuzkoa'n, pototxa, pitotxa, putotxe (nastauak izenok, nere ustez), kata-martea, eta orain ikusi degunez, "txiñotea".

Baña, "txiñotea" eta gineta izenak elkaŕen antz andia dute. Eta ara ene susmoa: ez ote da onezkero ginetea edo kata -jinetea Euzkadi'n galdu, eta, bizkitaŕtean, ez ote du bere izenak, "txiñotea" oraindik irauten, baña okeŕeko pizti bateri ezaŕia?

Dakikeanak erantzun beza, aŕen, euzkerearen onerako.

GAŔO'TAŔ BERNARTA M.

Errijetatik

LASARTE

BERIBIL LAXTERKETA.—Aurtengo beribil laxterketa, amargaŕena, gain gañekoa izan degu.

Lasarteaŕok jendetza aundiak ikusten oituak gaude. Gipuzkoa'n ezezik Euzkadi osoan bai ote beste eŕi bat gureak añako jendetzak ikusi dituanik? baña alaz ere igandekoarekin aŕituta gelditu gera. Gure begiak etzuten beñere oŕenbeste jende ikusi. Laxterketa amaitu ostean jendea tribunetatik eŕiruntz zetoŕela bidea bete-bete egiñik azaltzen zan. Nere ustez une artan jendeak iru edo lau kilometro beteko zituan. Eta bidea, gure eŕi inguruan, zabalenetakoa da: amaŕ metro.

Izpaŕingiak bere garaian beaŕ bezin zeatz eta garbi beŕi eman zutelarik eztegu emen gai ori erabili beaŕik.

Zorionak Fagioli irabazleari ta zorionak ere Sutok, Caracciola, Nuvolari, Wimille, Dreyfus, Chiron, Varzi ta gañontxekoai. Aitatutakoak beintzat zein baño zein iaiogoak dirala derizkiogu.

Lasterketa eratzaleai ere gure zorion beroena, bereziki ikusleai zegozkien oaŕak euzkeraz idatzirik azaldu zitualako.

Uŕengo aŕte J. 1.!

A-BI.

MAÑARIA

JUAN-ETOŔIJAK.—Igandez eta astelenez egon zan emen Usaola'taŕ Kepa abeŕkide zintzua. Jaun au, emeko senidiak eta aizkidiak ikeŕtuten ibili zan. Eta, beti lez, umorerik ekaŕi eban! ¡Amaikatxu baŕe eragin euskun.

—Baŕa igandez egon zan Basaguren'daŕ Gabirele neskatil begikoa.

—Igaroriko astian egon ziran emen Ariznabaŕeta'taŕ Martin, Jon Kepa ta Joseba abeŕkide zintzuak.

—Santurtze'tik etoŕi ziran Bartzena'taŕ Agapita, Amesti'taŕ Imanole ta Kapanaga 'taŕ Danele, gure aizkidiak.

SAI-KUMA BAT SALGEI.—Mugara aldeko gixon bik esan dauskube, sai-kuma edeŕ bat salgei daukoela, ta, irakuŕlien aŕtian edo, txori oŕi erosi gura dabenik ba -dago, emeko batzoki'ra zuzenduteko; saneuŕiiaz ta abaŕ, bertan konponduko dirala-ta.

Beraz, olako txori edeŕ bat erosi gura daunak, emeko Batzoki'ra jo begi.

AZKONAŔAK. — Aspalditxuan, pizti oneik, emeko solo batzuetan trizkantzak egiten diñardube. Lengo gau baten, "Ageŕi,,'ko Kuireka (Ziriako)'ren soloan irurogetasaspi artaburu jan ebezan; eta an inguruko soloetan be kalterik asko egin eben. Ori dala-ta, aldebarayetaŕak pizti oŕeikaz asaŕe dira.

MAÑARIKO.

MENDEXA

ALDI ONETAKO GAUZAK.— Aldi onetan gauza negaŕgaŕijak ikusten doguz.

Egunak eta ordubak geldi-geldika igazten dira, ta alantxe gixonak be.

Ludija aundija da. Eta berton, gauza aundijak eta txikijak jazoten dira.

Ludi aundi au, abeŕi asitotan zatituta dago. Ludiko abendeak be, alantxe dagoz: abenda askotan zatituta.

Guk be, beste ludiko gixakijen antzlan, geure abeŕija dogu. Abeŕi au, Euzkadi da. Txikija, baña geuria. Eta geuria dalako, luŕez eta soñez txikija danaŕen, bijotzez aundija da.

Gauŕ, baña, zoritxaŕez, atzeŕitaŕen menpian aurkitzen da.

Egija entzun eta esatia gogoko yatanezkero, zuri ba, irakuŕle, neuk ikusiriko gauza bat esan barik ezin itxi neikixu.

Lenago be, biaŕba, izpaŕingi-bidez-edo, zeozer jakitun egongo zara.

Igazi dan irala'n 20'gaŕenan, Bilbao'ra ostera bat egiña otu yakun, eta bai [...] be. Etxerantzian, Gernika'ra eldu gintza[n]. Eta Gernika'n, izpaŕingija erosi gendu[n]. Eta izpaŕingijan, beste izpaŕ batzuben a[ŕ]tian, auxe irakuŕi: "Lo sucedido en Ga[...]ka. Por culpa de los monárquicos hay veinte nacionalistas en la cárcel de Gernika".

Izpaŕ au, nigaz batera egon ziranak ba[...] nik diñodan lez esango leukie. Amabo[st] urteko mutiko bat be ba-eguan, baŕa ama[...]sei ta amasaspikua be.

Beŕogeta amaŕ urtetik gorakua be, a[...]txe eguan. Emakumiak be bai. Eta one[...] be, gastiak eta zaŕtxubaguak. Emakum[...]etako bat, bulaŕeko ume ta gustikua za[n]. Eta gustijak espetxian!

Espetxian saŕtuta onek oraingo aldi on[e]tan, ezkauz laŕegirik aŕituten. Gu aŕitute[n] gauzana, beste au da: emakume ta gixon[...]ezko, danak areto baten eukitiak.

Basatikeri oneik guk egiña, gu gara[...] lako "cavernícolas" batzuk egiña, aŕit[u]tekua etzan ixango.

Baña bai, "zibilizaziñua" leku gustijeta[...]ra zabaltzen dabiltzan oŕeik egiteko.

Antza dagonez, gauŕ emen Bizkaya'n agindutеn dabenak, zileizti-jakintzetan atze[...]ratxu bixi dira.

Bakia gura dabela diñue, ta gudearen bila dabiltz.

Ludijaren azkenengo indijuen aŕtian be etzan olakorik jazoko. Eta au gusti[a], "zibilizaziñuaren" ixenian ei-da. ¡Esku[...]etan yagok!

ABENDEŔI.

MURELAGA

Ika ordua eben da emen be gestori[...] ageŕtu yakuz: ageŕtu be ez edozelakua[k] gero, aukeratu ditue ba eŕiko sendo-sen[...]duok eta karlista moda baŕikuek, onen karlistetasuna Orexa eta Areiltza jauna[k] auteskundietan ageŕtu eskerokua da, Gai[...]tan de Ayala'ren laguntasunagazkua. Eu[...]rok dira:

Onaindia'taŕ Eusebi.
Plaza'taŕ Nikola.
Uriguen'daŕ Josu.
Astorkia'taŕ Paustin
Kareaga'taŕ Jon.

EIBAR

TXARLAZO'RA.—Neure zuŕu-muŕua[k] ere bete dira. Ba'dago ba datoŕen igandea[n] Deportivo'kuak eralduta dauken ibil-aldia Orduña'ko mendi oŕtara. Uŕteyera izango da goxeko bostetan; Aruskoan ordubete izango degu aske (Lodio'n) jaupa entzun eta gozaltzeko. Orduña'tik uŕteyera izango da aitzaldeko bostetan. Saneuŕijak dira; bazkidientzako sei lauŕleko ta eŕial bi, eta bestienkako saspi laueŕleko. Adieratzen yakoe izen-abixenak emonda daukoneri larunbatean gabeko 8'k-aŕte gordeko -yakela txaŕtela.

IZPAŔ-BELTZAK.—Igazi dan astean, Ermu-aldean, goixeko bultzijak aŕtu eta il eban, Okamika'taŕ ((Ilarion) eibaŕtaŕa (Goyan bego).

Baita ta ere bertan astean il zan Efasti 'taŕ Miren (G. B.) emengo udal-etxeko txindi-zaña.

IDIAKEZ AZKE.—Larunbatean ezan emen besterik entzuten itz onek baño. Azke izango alda Idiakez? Bai...? Ez...? Aŕtsaldeko oŕdu-bitatik ekin eutsen emendik itauntzen Donostia'kin ango izpaŕak yakin gurariko. ¡An poza yakin-gendunian ar[...]ke izan zala! ¡Zorijonak Idiakez!

LASAŔTE'RA. — Igandean taŕantea laisteŕketa zala ta, emendik jente aundia izan zan.

GASTEPEÑAK. — Uda-aldian gogoŕ yardun-dabe lanean eta ez dabe oraindiño gogai egin. Uda-aldikoak amaitu-dirala eta orain ekin-dautse negurako gertatzen. Zer...? Orain esango dautsut bakaŕik oge[...]tabost gastetxuk diarduela antzeŕkiak geŕtatzen. Noiz? Ze egunetan emateko? Uŕengoan esango det geyago onen gain.

IRAETXE.

Endeiza'tar Eusebi

卐 卐

Endeiza'taŕ Eusebi geure eŕitaŕa dogu. Ondaŕutaŕ semietarik Ondaŕu-maŕale ta zintzoenetaikua, eta ori dala-ta, etoŕiko yakun igandian, Aguŕtza egunean, bere eŕijak omen andi bat egingo dautsa, berak, bere lan neketsu ta etenbakuakaz ondo irabaziŕa daukan omena.

Endeiza'taŕ Eusebi ezautzen eztaun aŕantzalerik eztago Ondaŕoa'n eta ezta Euzkadi'ko itxas gixonen aŕtian be.

Aŕantzaliekanako bere maŕasunak, itxas eŕien nasaŕasunen zaletasunak, euzko-abaruak ondo imindeko eginda daukazan lan andijak ezagutuazoten dauskube Endeiza 'taŕ Eusebi.

Berak aña lan euzko-aŕantzalien onuregatik egin daun gixonik eztogu ezautzen.

Endeiza jaunak ezelako margoei ezetarako be begiratu barik egin ixan dauz bere lan neketsubak aŕantzalien aldez.

Eta au eztiñogu bestetarako, Ondaŕoa'n daukagun udal baŕijak Endeiza'ren omenez Santa Clara aŕantzale-anaidijak eratzen diardun jaya politika dala-ta bere laguntasuna ukatzen daulako baño.

Eta politikea egiten dauna Ondaŕoa'n bakaŕ-bakaŕik, udala baño ezta; ez udala, ba, udala, eŕijarena da, ta eŕijak omen egingo dautsa Endeiza geure eŕitaŕ zintzuari.

Politikea egiten dauna Ondaŕoa'ko endore ta iru ziñegotzi karlataŕak dira, eŕijari Endeiza'k egin dautsazan lan onurakoŕei jaramon baga, euren zitalkerijei leku emotiaŕen.

Baña endore ta ziñegotzi karlataŕak: Eguna etoŕiko da, gu ezkara laŕituko eldu aŕte ta lasai egongo gara orduban geuria egiteko geŕtu. Ez uste ixan beti lez azketsiko dautzubegunik, ez. Ezkara beti bigunduko. Noiz edo noiz orduba dogu zubek biaŕ dozuben zigoŕa ezaŕteko, ta ixango dozube zigoŕa. Zigoŕ gogoŕa. Puztuta zabiltze egun bateko agintzeagaz. Geuk gura ezta itxi dogun agintzeagaz. Poztuta eta zeubon lotsabakotasuna agiri-agirijan iminden dozubela. Ezegatik be burubban aŕtu barik eŕija zubena eztala. Eŕija, Euzkadi geure Abeŕi bakaŕaren azkatasun bidian dua. Bide ori, gustijok aakigu, labuŕ yaku laster. Eta orduban...

Baña naikua da. Eztogugura geure eŕi kutun onek bere seme zintzuari egingo dautsan omena gaŕaztuterik. Zubek zeubon zanetako odola gaŕaztuta badaukazube, or konpon. Guk geuria egingo dogu. Au da: eŕijaren gurea.

Eta gauŕ, eŕijaren gurea ezta besterik Endeiza'ren lan onurakoŕak eskaŕtutia baño. Endeiza'taŕ Eusebi, "Maspe" ixenordiagaz Bilbao'ko izpaŕingijetan ainbeste lan edeŕ idatzi dauzan gixon zintzua. Auŕerago diñogun lez ezelako politikei begiratu barik, eta au agirijan daukagu bere idatzijak espanaŕ eskeŕ ta eskumako izpaŕingijetan eta abeŕtzalienetan argiŕaldu ixan diralako. Politikea alboratuta ta beretzat burukomiña ugari baño besterik lortu eztaula.

Egiia da, burukomiñen ganetik gauza gozua dala bere bijotzerako, bere eŕijagatik ainbeste lanen igali ona ikustia.

Berau, geure eŕijak daukan portu edo abaru baŕijan ikusten dogu.

Berau, Euzkaleŕia "dragea" saŕitan ona ekaŕi dauskunian ikusi dogu.

Berau, emengo portuko lantxubetan euki dogu.

Berau, "pontoi" baŕijan eukiko dogu.

Eta ixentetan juan barik gauŕkuagatik naiko dalako asierea emoteko, saŕitan Bizkai-Aldundi'tik nai Madrid'go gobernutik ezer lortuta izpaŕingijetan irakuri dogunian.

Guaŕkua amaitzeko, eztaukagu besterik esan biaŕik auxe baño: Eŕija geŕtu dagola biaŕ daun bestian omenduteko, eta datoŕan igandian egun audja eukiko dogula ondaŕutaŕok.

¡Gora "Maspe"! ITXASTAŔA.

Euzkel-idazlien aldez

卐 卐

Idazlarijak bere idaz-lanak argiŕaltzeko aŕeta ta zintzotasun osuaz idazten dauz; bere gogo-bijotza kerazotako oldozpenak idazkoŕtz bitaŕtez ingira erakaŕteko zurtasun eta alegin gustijak iminten dauz eta bere lana atsegin eta uleŕkoya ixan dagijan buru-austiari zintzoro ekiñik idaz-lan gaya edeŕkiroen eraltzen dau, apaindurik ioskera onenagaz, aditz eŕikoyanagaz, esakun poliŕenakaz eta asmau leikezan obatasun gustijakaz eta neke-bidez soŕtuerazotako lan ori, argiŕaltzeko uste betiaz, eguneroko edo astearokuetara bidaltzen dau.

Noiz argiŕara urtengo ete daun idazlarija urduri da, eta artezkari jaunaren atzamaŕetatik idaz-lan oŕek bixirik urteten ba-dau, bai-dageŕ eguneroko edo asterokuetan ¡baña, ene zoritxaŕa! idazle gixajuak ardura gustijagaz idatziriko itzak iruntziŕara argiŕaltzen diraz, ¿zer jazo ete da? ¿Edo ene begijok lauso ete dira? Eta idazle gixajua bere zintzotasun osuaz idatziriko lana bai-dua astiro-astiro irakuŕiaz eta IDAZKI idatziriko itzaren ordez IDAZLI, edo EGAZLI ezaŕi dautse, GORA itz ordez GORA ta abaŕ, eta it bakaŕaren okeŕak gitxi ba-lira oldozkun eta esakunak be ankaz-gora argiŕaratuten dabez; ¡baña! ze aŕayo goŕi dabil iraŕkola oŕetan? diñardu bereikeitan idazlariak.

Eta egija, irakuŕle, ¿ze aŕayo goŕi ete dabil iraŕkoletan edo zelako moŕoyak dira eurok? diñot nik be, eta aŕituta nago zelako aizkorakadeaz moztu daben nire atzenengo idaz-lana, biyorturik nik idatzirikua, ba aonetara idatzi neban: "Aberatz edo eukitsuben aldetik orain aŕte be, Euzkereak ez dau laguntasunik ixan, gauŕ egunotan be gure uri ta eŕitxubetan andiki ta aberatzen izkuntzea eŕderea da; basteŕtuta bixi gareanon izkuntzea baŕiz Euzkerea dala esan geinke". Ostera, iraŕkolakuak nastaurik aonetara argiŕaldu eben: "...gure uri ta eŕitxubetan andiki ta aberatsen izkuntzea baŕiz, Euzkerea dala esan geinke". ¡Bestelako aldakuntzea...!

Olantxe iraŕkoletako moŕoyakaz jazoten da geyenetan alpeŕik idazlarijen izki argija, alpeŕik iraŕkoletako zuzentzale bizkoŕen oarkotak, onenian eta topo-topuan, iraŕkol-langile oŕeik biyortu ta iruntziŕaratuten dabe, eta batez be euzkerazko idazkijak diranian okeŕ-utzok gustiz ugarituten dira, ¡agiri da iraŕkol arazuetan euzkeldun langiliak uŕi dabiltzazena! antza danetz langile geyenok erdeldunak ixan biaŕ dabez eta ez dira alegitzen esku-aŕteko euzkel-lanak zuzen egiten.

Iraŕkoletako utzok, txikeŕanak ixan da be, Euzkereari kalte andijak dagitsoz, batez-be irakuŕle aŕtian gaiztasun asko sortzen dabe, okeŕ utzok ulergatxak egiten dira eta uste dabe egunaro itz baŕijak asmaten gabiltzezala; irakuŕle oŕeik lasteŕ gogait egiten dabe euzkera irakuŕtiaz eta akiakulo gustijak euzkel-idazlientzat ixaten dira.

Euzkereagaitik gustiz eta egi-bixi-bixiz alegintzen garanontzako jazokun oneik atsekabiak doguz; gure Euzkereak idazlarijen aldetik zeaztasuna biaŕ ba-dau, biaŕekua da baŕa be idazlan oŕeik iraŕkoletan eraltzen dauzan langiliak Euzkerea jakin dagijan.

ETXEKUA.

¡EUZKELTZALEAK!

ARIETA BITXIZALE — Euskeraz

Marca registrada 99356

¡ARA ZUEN ORRATZA!

LEGAZPI, 10'n Urrutizkiña, 13.777

DONOSTIA

Sagardoantzako eta ardoantzako Kortxurik onenak.

Luis de Olano

Plaza de las Escuelas, 10. Donostia

Irakurri EUZKADI

Euzko - Ikastola - Batza

(Federación de Escuelas Vascas)

Queda abierta la matrícula de las Escuelas Vascas de Errotatxueta (Abando) y de Belostikalle (Bilbao) para el nuevo curso 1934-35, que ha comenzado el 17 de septiembre.

Asimismo, habiéndose establecido una nueva clase de total enseñanza euzkérica para niños euzkeldunes en las referidas escuelas, se admiten inscripciones a partir de esta fecha. Esta inscripción, para las clases de euzkeldunes deben llevarla a cabo incluso los que estén matriculados con anterioridad.

Para la clase euzkérica solamente se admiten niños de ambos sexos de cuatro a nueve años.

La matrícula puede llevarse a cabo en las oficinas de Euzko-Ikastola-Batza, Ibáñez de Bilbao, 16.